

EXCERPTA

23. zenbakia

1988-apirila

gaiak

orrialdeak

Greko-euskarazko gramatika-
konposaketa (Orixe).....477-478

Hesiodo-ren Teogonia.....479-480

Kikero: Damokles-en ezpata.....481-483

Euskal herrietako armarrak
(latinezko idazkunak).....484

Th. Kempis eta klasikoen kultura.....485-488

Jon Gotzon Etxebarria (Hymnus).....489

Definitiones, etymologiae, explicationes,
e Sancti Augustini scriptis depromptae.....490-491

De vita exemplarium presbyterorum vasconum:

De iustitia, de mendacio et de episcopo Morcillo. 492

Grezia-ko Mitologia
(barne-orrietako eraskina)

'Avtí=-orde,-opo,-begi,izter-,gezur-

antafos=buruz buruko,opoko.

Antagonistēs= " " "

antichthōn=opo-lurreko,opoz-opoko(antípoda).Orpo-ren
aldaera.

antibásileus=errege-orde,opo-errege.

antídikos=auzi-opoko;auzitegian aurkakoa.

antikéleusis=opo-agindua(contraorden)

ántikrys=begiz-begi(directamente)

anthēlios=eguzki-begi(Iduzki-begian,villa de S.J.de
Luz.

antíkleis=gezurgiltz.

antílogos=opo-esana;besterakoa=contradictorio;opoz-o-
pooka=contrario..

antíos=aitzineko,aurreko.

anthipathēs=izterbegiko;begiko=simpático;Cfr.izterlen-
gusu.

antipátheia=bekaitz(begi-gaitz).Orexa-n bekoitz.

antholkē=opo-indar,contrapeso,resistencia.

antíproika=uts-orde,a menosprecio.

anthistátēs=opoko.Nahikoa da -KO lokatiboa=dagoena;ho-
nek asko laguntzen digu aditz grekoen espa-
zio adierazpenerako,Berdin,-RA eta honelako
atzizkiekin.Opoz opo.egon(opoz egon)=estar
en contradicción.

antitypon=edu-orde(Cfr.eredu).Edu=bezela,Markina alde-
an erabili izan da gure egunetaraino.

antóphthalmos=begiz-begiko.Metaphora berdina grekoz e-
ta euskaraz.Literalkiago=izterbegiko.

Izterbegi=adversario(Zuberoa)
 "izterbegiak soz hari zaitzat
 nun sarturen ote nizan,"=mis enemigos me están
 acechando por ver dónde entraré.
 antiphone0=erantzun.Cfr. entzun,oir,beronen fakti-
 tiboia da eta.
 antanapano=geldiarazi(faktitiboia).

Orixe,1942

(jarraitzeko)

ΗΣΙΟΔΟΥ
 Θ Ε Ο Γ Ο Ν Ι Α

- 154 Ὅσοι γὰρ Γαίης τε καὶ Οὐρανοῦ ἐξεγένοντο,
 δεινότατοι παίδων, σφετέρῃ δ' ἤχθοντο τοκῆι
 ἐξ ἀρχῆς· καὶ τῶν μὲν ὅπως τις πρῶτα γένοιτο,
 πάντας ἀποκρύπτασκε, καὶ ἐς φάος οὐκ ἀνίσκαε,
 Γαίης ἐν κευθμῶνι, κακῆ δ' ἐπετέρπετο ἔργῳ
 Οὐρανός. Ἢ δ' ἐντὸς στεναχίζετο Γαῖα πελώρη
 στεινομένη· δολίην δὲ κακὴν τ' ἐφράσσατο τέχνην.
- 161 Αἴψα δὲ ποιήσασα γένος πολιοῦ ἀδάμαντος
 τεύξε μέγα δρέπανον καὶ ἐπέφραδε παισὶ φλοισιν·
 εἶπε δὲ θαρσύνουσα, φίλον τετιημένη ἦτορ·
 Παιδες ἔμοι καὶ πατρός ἀτασθάλου, αἴ κ' ἐθέλητε
 πείθεσθαι, πατρός κε κακὴν τισαίμεθα λώβην
 ὑμέτερου· πρότερος γὰρ ἀεικέα μῆσατο ἔργα.
- 167 Ὡς φάτο· τοὺς δ' ἄρα πάντας ἔλεν δέος, οὐδέ τις αὐτῶν
 φδέγξατο. Θαρσήσας δὲ μέγας Κρόνος ἀγκυλομήτης
 ἀψ αὐτῆς μύθοισι προσηύδα μητέρα κεδνήν·
 Μῆτερ, ἐγὼ κεν τοῦτό γ' ὑποσχόμενος τελέσαιμι
 ἔργον, ἐπεὶ πατρός γε δυσωνύμου οὐκ ἀλεγίζω
 ἡμέτερου· πρότερος γὰρ ἀεικέα μῆσατο ἔργα.
- 173 Ὡς φάτο· γήθησεν δὲ μέγα φρεσὶ Γαῖα πελώρη.

Eurok ziren Lur-Zeruetatik jaiotako semerik beldurga-
rrienak, lehenengotatikaitari gorrotagarri bihurtutako
koak. Bat jaio eta berehalaxe izkutatzen zituen denak
lur-altzoan, argitara irten gabe utziz, eta Ortzea bere
gaizki eginean alaitzen zen. Barne-intziriz ari zen
Lur zabala haiez beterik. Eta antze maltzur-gaiztoa as-
matu zuen. Berehalaxe halako altzairu zuria egin zuen,
igitai handia eratu eta seme maiteai erakutsi zien. E-
ta bere bihotz biguna tristeturik esan zien adorea e-
man guraz: Ene semeok, aita gaizto bategandikook! Nire e-
sanak egin nahi badituzue, zuen aitaren irain beltzaz
apentza hartuko genuke. Hark asmatu bait zituen lehenen-
go ekintza lotsagarriak. Horrelaxe mintzatu zen. Beldu-
rrak hartu zituen denak eta inork ez zuen txintik ate-
ra. Berriz Kronos maltzur-handia adorez beterik honela
zuzendu zitzaion ama arduratsuari: Ama, neuk ematen di-
zut hitza lan hau burutuko dudala, gure aita madarika-
tuaren bat ere axolarik ez dut eta. Hark asmatu zituen
lehenengo ekintza lotsagarriak eta. Horrelaxe hitz e-
gin eta Lur zabalari barrua biziki poztu zitzaion.
(vv.: 154-173)

—61. Quamquam hic quidem tyrannus ipse
iudicavit, quam esset beatus. Nam cum quidam ex
eius adstantatoribus, Dámocles, commemoraret in ser-
mone copias eius, opes, maiestatem dominatus, rerum
abundantiam, magnificentiam aedium regiarum, nega-
retque umquam beatiorum quemquam fuisse: «Visne
igitur, inquit, o Dámocle, quoniam haec te vita delectat,
ipse eam degustare et fortunam experiri meam?»
Cum se ille cupere dixisset, collocari iussit hominem
in aureo lecto, strato pulcherrimo textili stragulo,
magnificis operibus picto; abacosque complures ornavit
argento auroque caelato. Tum ad mensam eximia
forma pueros delectos iussit consistere, eosque nutum
illius intuentes diligenter ministrare. 62.—Aderant un-
guenta, coronae, incedebantur odores, mensae
conquisitissimis epulis exstruebantur. Fortunatus sibi
Dámocles videbatur. In hoc medio apparatu fulgentem
gladium e lacunari seta equina aptum demitti iussit,
ut impenderet illius beati cervicibus. Itaque nec pul-
chros illos ministratores adspiciebat, nec plenum artis
argentum, nec manum porrigebat in mensam; iam ipsae
defluebant coronae: denique exoravit tyrannum, ut
abire liceret, quod iam beatus nollet esse.

Satisne videtur declarasse Dionysius nihil esse ei
beatum, cui semper aliqui terror impendat? Atque
ei ne integrum quidem erat, ut ad iustitiam remigra-
ret, civibus libertatem et iura redderet: iis enim se adu-
lescens impróvida aetate irretferat erratis, eaque
commiserat, ut salvus esse non posset, si sanus
esse coepisset.

(Tuscul. V., 61-62. zenbakiak)

DAMOKLES-en EZPATA

Bestalde, tiranoak berak ebatzi zuen noraino zen zorionekoa. Bere lausengatzaietariko batek, Damokles-ek, hitza hartu eta haren ondasun-aberaskiak, agintaritzaren gorenaren, haren eskuarteak, jauregiaren edertasun-bikaintasuna gogora ekarri eta inoiz inor zoriontsuagorik ez zela egon esatean, "Nahi duzu, Damokle, esan zion, bizimodu honi atseginezkoa deritzazunez gero, beraz gozatu eta nire zoriona dastatu?" Eta hark baiezkoa emanenez gero hauxe agindu zuen: jar zezatela gizona urrezko eserlekuan, tapiz ederra zabaldurik; pintura bikainez margozturik. Eta baita urre-zilarrez landutako mahaitxoak ere. Gero mahai-alboan otsein aukeratuak, harritzeko ederrak, jartzeko agindu zuen, eta haren keinuen zain, arduraz otsein zezatela. Bazeuden bertan ukenduak, lore-koroeak; lurrinkai gozoak erretzen eta mahaiak jaki bana-banako ez beteta. Damokles-ek zorionekotzat zuen burua, antza. Eta halako prestakuntzaren erdian sabaitik ezpata distiratsua zaldi-zurdaz lotua eskegiteko agindua eman zuen, gure gizon zoriontsuaren buru-gainean dingilizka. Era honetara, ez zuen begirik ipintzen zerbitzari galant haiengan, ezta artez beteriko zilarrean ere; eskua mahaira luzatu ere ez zuen egiten; koroeak berez bezala erortzen ziren. Azkenik, tiranoari arren egin zion alde egiten utz ziezaion, harrez gero ez zuela nahi eta zoriontsu izaterik.


Aski garbi utzi al zuen Dionisio-k ez duela zorion-izpirik beti ikaratzeko zer bait gainean duenak? Eta berak ez zuen, noski, bere eskuan zuzentasunera bihurtu eta herriarrei askatasuna eta eskubideak itzultzerik: gazte-

483

rik, zuhurtziarik gabeko adinean, irristatua bait zen bera errakuntza horietan eta oker jokatu, zentzuduna izaten hasi arren ere, burua guztiz ezin-zuritzerraino.

Kikero erromatar idazle bikaina eta ugaria nor eta nolakoa zen ez dago esaterik lenno gitxitan. Haren idazlanak zenbat eta zein mailatakoak diren ere nekez ager daiteke tartetxo batetan. Irakasleak edozein literatur liburu espezializatutan arki dezake zen erakutsi eta irakatsi ugari.

Egia, Kikero-ren lumatik eta ahotik hau baino idaztune jakingarriagorik eta bikainagorik atera zen. Hala ere, aukeraketa zaila zen eta helburu praktiko bati lotu gatzazkio itzulpena egiterakoan: lagunarteko hizketan, prosa literarioan eta hitzaldi dotore samarretan maiz egiten da Damokles-en ezpataren aipamena. Eta horretarakoxe hautatu dugu atal hau, ikasle gazteek jakin dezaten non duen oinarrria hain ospetsu egin den zita klasiko honek.



LEKUE

LEZILE



(euskal abizenak)

LATINEZ(bietan): "Ave Maria gratia plena".

EUSKARAZ: "Agur Maria graziaz betea".

ASKLEPIO

Latinoen Eskulapio, Medikuntzaren heroia eta jainkoa. Apolo-ren semea. Bere jaiotzari buruzko elezaharrak oso ezberdinak dira. Arruntenak, Pindaro-k jarraaitzen duenak, dio Apolok Koronide, Flegias errege Tesaliarraren alaba maite izan zuela, haurdun utziz. Haurdun zegoela, baina, Koronide-k hilkor baten, Iskis Elato-ren semearen maitasunari amore eman zion. Belabeltz baten zuhurtasun ezak hortaz ohartarazia-edo eta iragarri-ahalmenak zirela bide-Apolok hil egin zuen andrea. Eta sutan erretzeko haren gorputza jartzear zirela, jainkoak umekia bizirik atera zion sabeletik. Beste tradizio baten arauerara, Asklepio zergatik zen Epidauro-ko jainkoa azaltzeko, Flegias lapurhandiak lurralde hartara jo zuen hango aberaskiak ikustearren, haiez jabetzeko asmoz. Alaba lagun zeraman eta honek bidaian Apolo-ren irritsari amore eman eta ume batez erdi zen ezkutuan, Epidauro-ko lurretan, Mirtio izeneko mendi hegalean. Gero bertan behera utzi zuen. Ahuntz batek hazi zuen umea, zakur bat zaindari zuela. Animalion jabe zen Arestanas artzainak umea arkitu eta zerion aureolak liluraturik geratu zen. Hor misterioaren bat zegoelakoan umea bakarrik utzi zuen. Bestetzek diote Arzinoe, Leuzipo-ren alaba zela Asklepio-ren ama. Umea Arsinoe-k izan eta Koronide-k hazi omen. Aitak Kiron kentaurori eman zion Asklepio semea eta Kiron-ek irakatsi omen zion Medikuntza. Hain zen azkar ikaslea, laster hilak ere berbizteko antzea eskuratu zuen. Baiki, Atenea-k Gorgona-ren zainetatik isuri odola eman zion. Ezker aldeko zainetako odola pozoituta zeto


rren bitartean, eskuin aldekoa osasungarri zen eta Asklepio-k berau erabiltzen zuen hilak bizteko. Hainbeste biztu omen zuen honela: Kapaneo, Likurgo, Glauko, Minos-en semea, eta aipatuena, Hipolito, Teseo-ren semea. Zeus beldur zen berbizkunde horiek zirela eta munduaren ordena nahasiko ote zuen eta oineztarri batez erail zuen. Apentzeko, Apolok kiklopeak uzkaile zituen. Hil ondoren Asklepio izar-multzoa bihurtu zen, Serpentarioa, alegia.

Beranduagoko lekukoek Asklepio Kalidon-en ehizaldian eta Argonauten txangoan aurkezten digute. Hala ere, normalean, legenden kikloetatik at geratzen da.

Seme bi izan omen zituen: Iliada-n aipatzen diren Podalirio eta Makaoen sendagileak. Geroko legendek emazte bat ere eman zioten, Epione, eta zenbait alaba: Akeso, Yaso, Panazea, Egle eta Higia. Tesalia-ko Trikan dakusagun haren gurtza-agian bertantxe sortua-Epidauro-n hedatu zen bereziki. Han medikuntza-eskola benetako bat antolatu zen. Egia esan, hango ariketak magikoak baziren ere, batez ere, medikuntza zientifiko baten oinarriak ezarri zituzten Asklepiotarrek. Asklepio-ren ondorengoek ziharduten lanbide hortan. Entzutetsuena Hipokrates, jainkoagandiko sendikoa. Asklepio-ren ezaugarriarik arruntenak suge batzu ziren, makila batetan kiribilduta eta pinaziak ere bai, ereñotz-koroak eta, batzutan, ahuntz bat eta zakur bat.

Ibat et Hippolyti proles pulcherrima bello,
Virbius, insignem quem mater Aricia misit,
Eductum Egeriæ lucis, humentia circum
Litora, pinguis ubi et placabilis ara Dianæ.
Namque ferunt fama Hippolytum, postquam arte novercæ
Occiderit patriasque explerit sanguine pœnas 766
Turbatis distractus equis, ad sidera rursus
Ætheria et superas cæli venisse sub auras,
Pæoniis revocatum herbis et amore Dianæ.
Tum Pater omnipotens, aliquem indignatus ab umbris 770
Mortalem infernis ad lumina surgere vitæ,
Ipse repertorem medicinæ talis et artis
Fulmine Phœbigenam Stygias detrusit ad undas.
At Trivia Hippolytum secretis alma recondit
Sedibus et nymphæ Egeriæ nemorique relegat; 775
Solus ubi in silvis Italis ignobilis ævum
Exigeret versoque ubi nomine Virbius esset.
Unde etiam Triviæ templo lucisque sacratis
Cornipedes arcentur equi, quod litore curram
Et juvenem monstris pavidi effudere marinis. 780
Filius ardentis haud setius æquore campi
Exercebat equos curruque in bella ruebat.

(P. Virgillii Maronis "Aeneidos" liber VII)



(Asklepio-ri eskainitako opari-erliebea, K.a.ko 380)
Atenas-ko Nazio Museoa

THOMAE A KEMPIS
DE
IMITATIONE CHRISTI

LIBRI QUATTUOR

Editio
ad codicem autographum exacta



ROMAE
TYPIS POLYGLOTTIS VATICANIS
1925

THOMAS HEMERKEN zuen izena gure egile ospe-
tsuak (latinez Th. Malle-
olo). San Agustin-en Or-
denako kanonigo erregu-
larra; 1379. urtean ja-
io zen, alemanez Kenpen
eta latinez Kempae, ar-
um zeritzan herrian.

Hil, berriz, 1471. an e-
gin zen.

Bere urrezko liburua
lau tomatan eman zuen;
bakoitzak izenburu be-
rezia zuen. Laster, bai-
na, laurak batera argi-
taratu ziren eta denen-
tzako titulua lehenen-
go liburuaren lehenen-
go kapituluko hasiera-
ko berbak hartu ziren,
irakurlea ohartuko de-

nez.

Idaztankera erraza eta laua darabil; tarteka, baina, kla-
siko en zertzelada batzu ageri zaizkiola. Orduko beste
askok bezala ez zuen alferrik ezagutu klasiko en eta
humanismoaren eragina. Ikusiko dugu, Aristotel-ekiko
konparaketan.

Zalantzarik gabe, Imitatio hori izan da euskarara ge-
hien itzuli den liburua, antxinazetik gure egunetaraino.

LIBER PRIMUS.

Incipiunt admonitiones
ad spiritualem vitam utiles.

CAPITULUM I.

DE IMITATIONE CHRISTI ET CON-
TEMPTU OMNIUM VANITATUM
MUNDI.

1. *Qui sequitur me non ambulat in tenebris* (IOANN. 8, 12), dicit Dominus.

2. Haec sunt verba Christi quibus admonemur, quatenus

JESU-CHRISTOREN IMITACIONEA.



LEHENBICICO LIBURUA.

Bicitce spiritualecotz on diren abisuac.



I. CAPITULUA.

*Imita JESU-CHRISTO, meẗpreça munda
duco vanitate guciac.*

NIRI darraitana ez dabilla illumben, dio JESU-CHRISTOC. Hitz horiez gure salbatçailleac irakhasten darocu nola

Chourio-k. 1788. an bigarrenez egindako argitalpenean Lehenengo liburua esan aurretik, beheratxoago datoz-en esandako berbak dakartzatza titulu gisa.

Liber eta Capitulum-en ondoko ohartxoak, labor-labor eta zehazki itzultzen ditu. (Astiroago eta zehazkiago arakatu gabe ezin da esan ea latinetik zuzen-zuzen i

tzuli zuen ala frantsesa eta latina begi aurrean zitula egin ote zuen bere lana). Dena dela, ataltxoak ez datoz originalean bezala; jakina, orduko edizioa ere noraino zen kritikoa jakin ez guk.

CAPITULUM II.

DE HUMILI SENTIRE SUI IPSIUS.

1. *Omnis homo naturaliter scire desiderat; sed scientia sine timore Dei quid importat?*

2. *Mellior est profecto humilis rusticus qui Deo servit: quam superbus philosophus qui se neglecto cursum caeli considerat.*

Sarrerako oharra bi aldiz, ia berdin, itzultzen du eta gehigarritxo bat erantsita.

I I. CAPITULUA.

*Guti iduc gure buruac, humill behar dugu
içan gure iaquiñ guciequiñ ere.*

GUÏÇONAC bere eguitez eta naturaleçaz du iaquiteco guticia. Baiñan certaco da iaquitea, Jaincoaren beldurafuna gabe?

Eguiaz laborari humill eta Jaincotiarrac guehiago du balio filosofo superbioac baiño, ceinac bere arimaren artha largaturic, ceruari eta içarrei beha baitarama dembora.

Ondoren ikusiko dugunez, klasikoek bezalaxe aipatzen du gizonaren jakin-mina eta philosopho hitzari lehenengo jakinlariek bezalako zentzuna eta esangura ematen dizkio.

IMITATIO: "Omnis homo naturaliter scire desiderat"

980^a Πάντες άνθρωποι τοῦ εἰδέναι ὀρέγονται φύσει.

ΑΡΙΣΤΟΤΕΛΟΥΣ

ΤΩΝ ΜΕΤΑ ΤΑ ΦΥΣΙΚΑ Α

"Philosophus qui...cursum caeli considerat"
 Jakina, ortzeak berez, gure begietarako, ez du ezetariko
 cursum-ik. Bertan dauden eta dabiltzan izarrek egiten
 dute ibilia; beraz, ongi itzuli du Chourio-k: "ceruari e
 ta içarrei beha".

"Οτι δ' οὐ ποιητική, δῆλον καὶ ἐκ τῶν πρώτων φιλοσοφη-
 σάντων· διὰ γὰρ τὸ θαυμάζειν οἱ ἄνθρωποι καὶ νῦν καὶ
 τὸ πρῶτον ἤρξαντο φιλοσοφεῖν, ἐξ ἀρχῆς μὲν τὰ πρόχειρα
 τῶν ἀτόπων θαυμάσαντες, εἶτα κατὰ μικρὸν οὕτω προϊόντες
¹⁵ καὶ περὶ τῶν μειζόνων διαπορήσαντες, οἷον περὶ τε τῶν τῆς
 σελήνης παθημάτων καὶ τῶν περὶ τὸν ἥλιον καὶ ἄστρα
 καὶ περὶ τῆς τοῦ παντός γενέσεως.

(idem, ibidem, 982b)

Kikero-k berdintsu, ohi duen estilo-aberastasunez:

—Tantus est innatus in nobis cognitionis amor et
 sciéntiae, ut nemo dubitari possit quin ad eas res hó-
 minum natura nullo emolumento invitata rapiatur.

(Kikero: "De Fin., V, 18, 48-49)

JON GOTZON ETXEBARRIA

Hymnus



In die resurrectionis Domini
 diem Patriae Vasconum celebrantes

Resurrexit, alleluia!
 Quem quaeritis iam non est hic.
 Volumus Christum videre!
 Alleluia, abite hinc!

Morti iam mortem intulit
 qui iugiter victurus est.
 Ne quaesieritis amplius
 videre eum qui vobis inest!

Alleluia, alleluia!
 Salvos fac, Domine, servos
 cum Patria. Alleluia! ecce
 Salvatio iam est inter vos.

Christus heri, hodie et semper.
 Canta, modulate tibia
 pulsa; eia anima mea,
 canta, Patriae aeternae in via!

124 **NAHIMENA** : "Satis evolutis ipsis etiam vocabulis resonat, quod ab eo quod est velle, voluntas".
(De spiritu et littera, XXXI, 53)

Berbak hedatu ahala, nahi izatetik nahimena ateratzen da

125 **NIKODEMO** : "Nikodemus autem quia nomen est graecum, pluribus notum est quod ex victoria et populo sit compositum; quia νίκη victoria est; δῆμος populus.
(Sermo 218, 15)

Eta Nikodemo izena grekozkoa da eta, askok dazagute garaipenetik eta herritik osotua dela; νίκη garaipena da, izan ere, eta δῆμος herria.

126 **NORENKIA (grekoz)** : "Saturati sunt filiis... Inspexi etiam codices graecos, utrum dativus casus esset, quod dictum est, filiis, an genitivus, quo illa lingua utitur pro ablativo, et inveni genitivum."
(Epistola 149, 5)

Semez bete izan ziren... Kodize grekoak ere arakatu nituen, ea norikia ala norenkia zen harako semez. Hizkuntza hortan genitivo erabiltzen da ablativoaren lekuan; eta genitivo aurkitu nuen.

FILIIS latinez dativo eta ablativo pluralekoak izan dai teke; hortik S. Agustinen bilaketa zuzena. Euskaraz, berriz, behin semeZ itzuliz gero ilundu egiten zaigu idaztunea.

127 **ODOLA** : "Interpretatur autem, quantum dicunt qui illam linguam noverunt, Edon, Sanguis: nam et Punice Edom sanguis dicitur".
(Enarrationes in Psalmos, 136, 18)

Hizkuntza hura ezagutu zutenek diotenaren arauera, Edom odola itzultzen da: Punikoeraz, bada, Edom odola da.

Phoenician language, Semitic language of the Northern Central (often called Northwest-ern) group, spoken in ancient times on the coast of Syria and Palestine in Tyre, Sidon, Byblos, and neighbouring towns. Phoenician is very close to Hebrew and Moabite, with which it forms a Canaanite subgroup of the Northern Central Semitic languages. The earliest Phoenician inscription deciphered dates probably from the 11th century BC; the latest inscription from Phoenicia proper is from the 1st century BC, when the language was gradually being superseded by Aramaic.

In addition to being used in Phoenicia, the language spread to many of its colonies. In one, the North African city of Carthage, a later stage of the language, known as Punic, became the language of the Carthaginian Empire. Punic was influenced throughout its history by the language of the Berbers; it continued to be used by North African peasants until the 6th century AD.

Phoenician words are found in abundance in classical literature as well as in Egyptian, Akkadian, and Hebrew writings. The language is written with a 22-character alphabet that does not indicate vowels.

·North African language traditions 13:153h
·relationships, writing, and phonology 8:592d

Apaiz baten eskutitza jaso dut oraintsu; lehengo EXCERPTA batean, Morcillo Gotzainarengatik esaten nuenak mindurik edo ez hain konforme, behintzat. Beraren alde, hau eta beste egin zuela euskaraz, berak eskatuta egin zutela, elizbarrutiko boletinean; beraz contra facta non valent argumenta arpegiratzen zidan, Eta gero Morcillo-ren nortasun handia eta egunen batetan justizia egingo diotela...

Nik ez dakit Morcillo-k gure hizkuntza maite zuen ala ez. Noraino heltzen zen haren nortasuna are gitxiago. Eta ez naiz inoiz harekiko justiziaren aurka jarriko.

Nik bertan aipatzen ziren hiru apaiz eredugarriei justizia egiteko idatzi nuen; eta orduko informazioa ez nuen nik asmatu; zintzotasunez goitik beherako diren apaizek emandako datoak ziren, eta gainera gero nik egiaztatuak...

Beraz, contra facta non valent argumenta errepikatzen dizut.

Bestalde, min handia hartu dut eskutitz hori irakurriz. Historialariak nolako zintzotasuna behar duen egiarekiko erakusteko Kikero-ren "De Oratore" liburutik pasartetxea aipatzen zidan. Irakurria nuen aspaldi; eta baita "De vita Attici" hortan goresten den harako hura ere: "Mendacium neque dicebat neque dici patiebatur...". Eta guzti horiek baino lehenago eta sakonago gure erlijioak bihotzerratu zidan jokabide-arauak uneoro gogoratzen didana: "Deus scrutans renes et scrutans corda...". Mundu hontan ez zait ezertxo ere galdu; eta besterako bidean Jaungoikoa dut lagun, gidari eta helburu. Nire lan honetan ez naiz ari gezurretan; horrexegatik, gorputz-animetan mailaturik eta odoldurik nagoen honek, egiak esateagatik, egiak esaten jarraituko dut.

"Psallam Deo meo quamdiu fuero"(Ps.145)

"Ene Jaungoikoa goretsiko dut bizi naizeino"

Jon Gotzon Etxebarria

Gernika